



Europaren zama baserriak

♦ **ELKARRIZKETAK:**

ALBERTO ALDASORO ETA ANE ALBISU AURREZ AURRE: EHNE, GOIMEN, EUROPA/BASERRIA. IÑAKI MURUA BERTSOLARI GABIRIARRARI. IZAGIRRE TXIRRINDULARI ORMAIZTEGIARRAREKIN. IDIAZABALGO NORBERTO OIARBIDE, "GOIERRIKO KAXIANO".

♦ **ERREPORTAIAK:**

MIKEL SARRIEGIREN ESKUTIK, GOIERRIKO BASOAK. LOINAZKO SAN MARTIN, ANDONI SARRIEGIRENETIK. TERE IRASTORTZA: ZALDIBIAKO PLAZAK JASO ZUEN ALZAAREN ODOLA.

♦ **OHIZKO SAILAK ETA BERRIAK**

JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO MAKINERIA ELEKTRIKOA

- Garabi zubidunak, portale-garabiak eta erdiportale-garabiak.
- Polipasto elektrikoak.
- Mantenu automatiko osoa.



Senpere Auzoa, z/g.
Telefona (943) 88 15 57
LAZKAO (Gipuzkoa)

ERAIKUNTZAK O. E.

merka P21 dendak



ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goiherri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina
ORDIZIA



TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2º
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

Zein da aldizkari irakurriena Goierrin?
Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa.

Dei 88 96 12 telefonora.



P - 21
Kafetegia

- Sandwix eta gosari apartak

Goiherri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

23. zenbakia. 92.eko Apirila.

Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale.
1.900 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, behea (Correos azpia). Tfn: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Zein da aldizkari irakurriena Goierri? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 889612 telefonora.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du. Era berean, Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du joandako bi urtetan eta aurrera goazen kurtso honetarako laguntzen zain gaude oraindik.

Dirulaguntzaren bat eman digute: (B) Itsasondo, Idiazabal, Zerain, Arama, Alzaga eta Lazkao Udalek

Dirulaguntzak agindu dizkigute: (Hitzarmenen bat sinatzekotan gara). Zaldibia, Beasain, Ordizia, Olaberria eta beste zenbait Udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Koordinatzailea: Jon Mikel Arano.

Publizitate arduraduna eta laguntzailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irasortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Mikel Leunda, Jon Imanol Iturrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Rosa Amundarain.

Kolaboratzaileak: Mikel Sarriegi, Ane Albisu, Jexux Lete "Ibai-ertz", J.M. Goikoetxea, M. Lore Mendizabal, Marijoxe Madariaga, Txema Auzmendi, "Maizpi", Xabier Gartzia, Jon Belarra, Juanjo Balerdi, Koro Ruiz, Xabier Akiizu, "Txurrupe", Miriam Bernuete, e.a

Azala: Segurako Armaola errota. "Zerain 91" Urtekaritik hartua.

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guz-

tiei. Idiazabalgo AMPO S. Coop. Kooperatibari bere dirulaguntzazatik. Goierriko Herrien Ekintzari, "Zure-Argazki" eta "Fotoetxe"eri, "Egunkaria", Lankide Aurrezkia, GOIMEN eta "Argia"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi ligitenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa:

GERTU KOOP.E.
(Zubillaga. Oñati)

* Lege Gordailua: SS-926/89(/)

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO, ZE UZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



88 96 12



GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria..... Tlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.
DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

Autobus ordutegiak

AUTOBUS ORDUTEGIAK

IDIAZABAL - IURRE - BEASAIN - ORDIZIA

	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	3 Jaietan ezik	6 excepto festivos	1-2-4-5 Jaietan ezik	3 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik
IDIAZABAL.....	07,00	08,00	08,30	09,30		10,00	10,10		11,00	12,00	12,25	13,00
YURRE.....	07,05	08,05	08,35	09,35		10,05	10,15	10,15	11,05	12,05	12,30	13,05
BEASAIN.....	07,10	08,10	08,40	09,40	09,30	10,10	10,20	10,20	11,10	12,10	12,35	13,10
ORDIZIA.....	07,20	08,20	08,50	09,50	09,40	10,20	10,30	10,30	11,20	12,20	12,45	13,20

1: Astelehena; 2: Asteartea; 3: Asteazkena; 4: Osteguna; 5: Ostirala; 6: Larunbata; 7: Igandea; 8: Jaiegunak

	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 7-8 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	7-8	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	7-8	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	7-8	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	7-8
IDIAZABAL.....	14,00	15,00	16,00	16,30	17,00	17,30	18,00		19,00	19,30	20,00	21,30
YURRE.....	14,05	15,05	16,05	16,35	17,05	17,35	18,05	18,30	19,05	19,35	20,05	21,35
BEASAIN.....	14,10	15,10	16,10	16,40	17,10	17,40	18,10	18,35	19,10	19,40	20,10	21,40
ORDIZIA.....	14,20	15,20	16,20	16,50	17,20	17,50	18,20	18,45	19,20	19,50	20,20	21,50

ORDIZIA - BEASAIN - IURRE - IDIAZABAL


	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	3 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik
ORDIZIA.....	07,30	08,35	09,00	09,30	10,00	10,30	11,30	11,45	12,30	13,00	13,30	14,30
BEASAIN.....	07,40	08,45	09,10	09,35	10,10	10,40	11,40	11,55	12,40	13,10	13,40	14,40
YURRE.....	07,45	08,50	09,15	09,40	10,15	10,45	11,45	12,00	12,45	13,15	13,45	14,45
IDIAZABAL.....	07,50	08,55	09,20	09,50	10,20	10,50	11,50	12,05	12,50	13,20	13,50	14,50

	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 7-8 Jaietan ezik	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	7-8	1-2-3-4-5 Jaietan ezik	7-8	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	1-2-3-4-5-6 Jaietan ezik	7-8	7-8
ORDIZIA.....	15,30	16,30	17,00	17,30	18,00	18,30	19,00	19,30	20,30	21,00	22,00
BEASAIN.....	15,40	16,40	17,10	17,40	18,10	18,40	19,10	19,40	20,40	21,05	22,05
YURRE.....	15,45	16,45	17,15	17,45	18,15	18,45	19,15	19,45	20,45	21,10	22,10
IDIAZABAL.....	15,50	16,50	17,20	17,50		18,50	19,20	19,50	20,50	21,20	22,20

Idea jatorrenek ere bultzada
behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu
behar diote

GOIERRITARRA ri,



EUSKARA BATZORDEA

Lana

- ✓ Neska bat behar da etxeko-lan eta umezaintzarako. Hobe euskalduna. Gaueko 8etatik aurrera dei 889448ra.
- ✓ 20 urteko neska pronto edozein lanetarako. Etxekolaneko informeak baditut. 888181ra dei.
- ✓ Neska gazte eta euskaldun batek gizonetzkoen lanak ere egingo lituzke. Bulego-garbitzetan, enpapelatzen, taberna-jatetxeetan... Edozein gauza, etxeko-lanak ezik. 801065, Edurne.

Salmentak

- ✓ Salgai kerosenozko berogailua. Salneurri interesgarria. Telefonoa: 654503.
- ✓ 120 bajutako akordeoia salgai. Tfna.: 884009.
- ✓ "Coolie" txakurrak salgai. Dei 766483 tfnora.
- ✓ "Komantxe" markako karro-denda salgai. 881153. Emaztegai-jantzia salgai, 38-40 neurria, arrasoa harribitxiekin. 160997, Ordizia.

Etxebizitzak

- ✓ Ileapaindegia alokatzen da Beasainen. Dei 883130 telefonora.
- ✓ Etxebizitza salgai Ordiziako Urdaneta kalean: 97 m2. bi bainu-gela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea aukeran. 889612, Ramon.
- ✓ Pisua salgai Lazkaon, Gurutze, 10-2.B. Sukalde jantzia, egutera.

Urtebetetzeak:

1949. urteko otsailaren 26an hil zen Madrilén Juan Telleria musikagile zegamarra. "Cara al sol" eta beste zenbait ereserikiren egile izanak eman zion ospea. 1917. urtean Madrileko Orkestra Sinfonikoak bere "La Dama de Aitzgorri" ensaiu sinfonikoa estreinatu zuen. Geroztik, Parisen eta Alemanian ibili zen, hango musikagintza aztertzen. Madrileko Kontserbatorioan irakaslea izan zen. Konposizio eremuan genero liriko eta operata landu zituen gehienbat.

Goierriko barruti/mugak

Euskal Institutu Geografikoak (INGEBA) 1979an burutu zuen eskualdekako zatiketaren arabera, 19 udalerri osatzen dute Goierri. Gaur egun, eta Altxagak herri izatea lortu duenez, 20 izango liriteke: Abaltzisketa, Altxaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain, 38.689 hektarea-ko azalera hartzen dutela

Ekin Euskarari Goierriin

Euskal Hitz" erakusketan "Begira eta Ikus" esan genion jendeari. Oraingoan "Ekin" esan diogu. Ekin euskara ikasteari eta lantzeari, Ekin euskara indartzeari eta zabaltzeari, Ekin arrotzak izan zaizkion leku eta alorrak atontzeari, Ekin familian, lagunartean, lantokian, kiroletan eta harreman guztietan euskara erabiltzeari. "Ekin Euskarari".

M. Karmen Garmendia
(Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia)

Erakusketaren aurkezpenetan hizkuntzari buruzko hiritarren eskubide eta Herri Aginteen eginbeharren berri idatzia ematen da; horretarako panelak erabili dira. Halaber hizkuntza, eta bereziki euskara, gizarteratzea zer suposatzen duen aipatzen da. Bukatzeko, ordenadore bidez Euskal Autonomi Elkarteko demolinguistikazko datuak eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren eginbehar eta ekintzak erakusten dira. Panel eta ikusentzunezkoen gain, Ekin Euskarari erakusketak, egoten den

herri bakoitzean, euskararen normalizazioa bultzatu dutenei omenaldia egingo die: (Beasainen berriki Ixabel Olanori, Lazkaon Aurreneko Alfabetatze-taldeari — Antonio Azkue, Jaxinto Fz. Setien, Joxe Mari Aranburu, Miel Mari Arakama, Aitor Murumendiaraz, Miren Garate, M. Dolores Lekuona, Kontsuelo Estensoro, M. Belen Arratibel, Mila Erauskin, Joxe Manuel Irizar eta M. Angeles Aldasoro) eta Ordizian bertako Azokari).

Lazkaoko Kultur Hamabostaldia

Martxoa-Apirilean zehar, Kultur Hamabostaldia eratu du Goierriko Euskal Eskolak. Martxoaren 30etik (inaugurazio eguna) apirilaren 15era bitartean "Ekin Euskarari" erakusketa izango da ikusgai Maizpide Euskaltegian, goizez 9etatik 12,30etara eta 3etatik 6etara arratsalde, astelehenetik ostiralera. Apirilak 5, igandean, eguerdian zabalik egongo da, 12etatik 14etara.

Apirilak 1a: "Ala kinkirrinera, Ala samurrera" ipuin kontaketa, Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 6etan. 3an: Bertso-paperean banaketa eta "II Gerriko Ikerlansariketa" liburuaren aurkezpena, ikastola eta eskolan goizean eta

Udaletxean arratsaldeko 8etan.

4ean: Bertso-saio gaztea: Sarriegi, Aranburu, Eguren, Aiestaran eta Alaitz, Udaletxean eguerdiko 12etan.

6ean: Diapositiba emanaldia Maizpiden, gaueko 9etan. 7an: "Euskararen normalizazioa herrizherri: Arrasateko AED, Tolosako Galtzaundi, Lazkaoko GEE, HPI... Goierriko Udal eta kultur elkarteak gonbidatuta daude. Udaletxean, arratsaldeko 7,30etan.

8an: Diapositiba emanaldia, Maizpiden, 21,00etan.

10ean: "In Fraganti" antzerkia, Areria Zinema, gaueko 10,30etan.

ORDIZIA/BEASAINO GOARDIAKO FARMAZIAK

Apirila: 3: Urbizu; 4-5: Azpilikueta; 6: Atorrasagasti; 7: Azpilikueta; 8: Jauregi; 9: Laumaga; 10: Cuesta; 11-12: Jauregi; 13: Arriola; 14: Urbizu; 15: Atorrasagasti; 16: Azpilikueta; 17: Jauregi; 18-19: Cuesta; 20: Laumaga; 21: Cuesta; 22: Arriola; 23: Urbizu; 24: Atorrasagasti; 25-26: Laumaga; 27: Azpilikueta; 28: Jauregi; 29: Laumaga; 30: Cuesta.

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LELAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240. ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02

20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 B E A S A I N

IBAI - ONDO



ZURGINTZA HALTZARIAK P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean



San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

Erredakzio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gairi buruz edota interesgarri izan litekeen beste edo-zertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean, kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefono eta helbideak eman beharko dira eta kaleratu nahi duen sinadura.

*A ze flaxa!
razionamendu txartela*



Zer gerta liteke...

...N-1 ko puntu beltzetan?

N-1 Errepidearen Beasain pareko desdoblamendua datorrela eta badabil nahiko komeri herri horretako alderdi politikoen artean. Gai tekniko xamarra izaki, ez dugu gehiegi entenitzen eta ez goaz horretaz txintik ere esatera. Bienbitartean, ordea, Ordizia-Beasain arteko tuneletik hasita Aristraingo bulego pare hortarainoko tramua ez dago oso ondo. Pare hori erabat aldrebes dago, istripuak izango dira, izan ez badira, frenazu marka ugari. Egia esan, okerrago egon da Iurreko paretik Idiazabal arteko sarreraraino. Hestu, txirringululari eta motozaleentzat. Bigarren bide bat zabaldu dute eta gaitzerdi. Castillo hotelaren parean dauden seinaleak nahasmena besterik ez dute sortzen. Hobetuko al du N-1a dagokionak, hildakoak izan aurretik.



liburudenda

• Diskak • Liburuak • Jostailu
didaktikoak • Eskola materiala •
Bulego materiala

Elosegi 16 • Tfnoa.: 88 65 00 - Fax: 88 79 71
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

KORTA mariskeria

Etxeko haztegiak

Menu Berezia (2 pertsona gutxienez)

- ☐ Langostinoa ☐ Txangurroa
- ☐ Almejak ☐ Misera -
- ☐ Añares cava edo Antina horratzardoa -
- ☐ Postrea, kafea likoreak-

PREZIOA: 3.500 pta. (+ BEZ)

GABIRIA

Tfnoa: 88 71 86

Gazteentzako Informazio Bulegoa

Zuetako askok entzun izango zenuten gazte-entzako informazio bulegoetaz edo, behar bada, arestian jaso duzue buzoietatik zerbitzu honetako zabalkunde-txostena. Baina, zertan datza bulego hauen egitekoa?

Ordiziakoa 91ko uztailetik ari da lanean. Hasiera batean jatorri bereko bulegoekin, gazte-ria mugitzen den zentru bereziekin (hau da: zentru hezitzaile, gazte elkarte edo-eta-gazteekin/gazteentzako zuzen ala zeharka lan egiten duten zerbitzuekin) harremanetan baka-rik.

Gazte-kolektiboarentzat interesgarriak diren gaietaz dokumentatzen aritu gara, batez ere 15/25 urte bitartekoentzat; gai hezitzaileak (ikas-ketak, karrerak, kurtsoak, bekak), astia (ikastaro-ak, karnetak, turismo informazioa, lojamenduak, lan barrutiak...), kultura (sariak, lehiaketak), lana (deialdiak, atzerrian lana, au pair...) soldadutza, kontzientzia eragozpena. Arlo nahiko zabal eta ugaria, duguna.

Soldadutza eta eragozpenari buruzko azken gai hau, konkretuki, izan da funtzionamenduan daramatzagun 8 hilabeteotan eskari gehien izan duena. Alde batetik soldadutzaren lege berriaga-tik eta intsumisioa eta eragozpenaren gaia jasatzen ari den problematika bereziagatik, bestetik.

Gazte askok zalantzak dauzkate gai horretan eta gehiago dira soldadutza egin nahi ez dute-nak; ez diote baliorik aurkitzen eta pentsatzen dute denbora eta lan posibilitateak galtzea dela, horrek eragiten diena.

Gazte txartelak bigarren lekua hartzen du, egin diren eskarien artean. Txartel hau Eusko



Jaurilaritzako Gazteri Zuzendaritzak bultzatutako karnet bat da, 15/25 arteko gazteentzat. Honekin, Europako, Estatu Espainoleko eta Euskadiko era-kunde eta kultur-zentru askotan lor daitezke des-kontuak. Argazki bat ekarri, N.A.N.-a, eta bapate-an lortzen da.

Interesa sortu duten beste gai batzu dira: kurt-soak orokorrean, elkartrukeak, eskola-ziklo ba-koitza bukatzerakoan iteera profesionalak, turis-moa e.a. Guztira, 300 kontsulta baino gehiago izan dira, eta udari begira iteera areagotzea es-pero da, koloniak, lan-barrutiak, e.a. prestatzeko edo eskaintzen diren aukera hezitzaileen artean hautatu ahal izateko.

16 eta 20 urte arteko gazte taldea izan da zer-bitzura gehien etorri dena; kontsulta zuzenak ez dituzte soilik interesatuek egin, baizik eta zeharo

interesatuak gurasoak, anai-arrebak izan ditugu.

Zergatik/zertarako informatu? Denok da-kigun bezala, gizartea gero eta konplexuagoa, bereziagoa da, gazteak arazoak aurkitzen ditu bertan moldatzeko, askok orientabide- errekurt-sorik ez dauzkate, eskaintzen zaizkien edo dau-den posibilitateak ezagutzen ez dituztelako.

Bulego hauen bidez hartzaileei informazioa hurbiltzea nahi da, edozein arlotan pertsonaren garapenean laguntze alde, eta bizi-kalitate hobea lortu ahal izateko horrela. Ahalegina egiten da hau horrela izan dadin, beharrezkoak diren bali-a-bideak erabiltzeko.

Bide honetatik doa gazteentzako informazio bulego guztietan berehala aurkituko den infor-matika sarea, lan koordinatu bat eraman jatorri berdineko zerbitzu guztiekin eta informazio az-karra, efikaza eta ugariago baten lorpenean era-giteko.

Aldizkari honetako tartetxoa aprobetxatuz Ordiziako gazteria gonbidatu eta animatu nahi dut zerbitzu honetara etor dadin, ez informazio zehatz bat jasotzera soilik, baizik eta proposame-nak egitera, aditzera edo, zergatik ez?, beste gaz-te edo taldeei interesa diezaiekeen informazioa ematera.

Bulegoa: Barrena Jauregia (sarrera Etxezarreta kaletik). Lanorduak: asteartetik ostiralera: arrat-saldeko 5etatik 7etara; larunbatetan: goizeko 10etatik eguerdiko 1etara. (Asteazken, goizeko 9etatik 11etara, bulego barneko lanak egiten di-ra).

Koro Ruiz

(Ordiziako Gazteen Informazio Bulegoa Arduraduna).

TXIRRIN-TXARRAN 92: "Gazte erreboltairen topagune"


Apirilaren 12an Ordiziara Gipuzkoako txoko eta herri guztietatik 2.000 gazte bako bako gehiago etorriko dira (Goierritik: Legorreta, Ataun, Lazkao, Ormaiztegui, Beasain eta Ordiziatik), duela urte mordoak batetik ospatzen den TXIRRIN-TXARRANaren ekintzetan parte hartzeko. Baina zer demontre ote da hori? Gipuzkoako 60 herrietan antolatutako dauden atsedean aldiko talde kristauak beraien arteko harremanak sendotzeko lurralde osoa batzen zuen ko-ordinakundea sortu zen, Bizi Alai Taldeak. BATEk haseratik Gotzaitegiaren onspena eta laguntza izan du.

Baina nolabait ere, mundua aldatu nahi duten talde kristau hauek non topatzerik ez zuten, festa-egun bat sortzea erabaki zuten. TXIRRIN-TXARRAN jai-egun honetan Gipuzkoa osoko gazteak beren poza eta jaigogoa lagunekin batekin ospatzen dute. Anaikidetasun giro berezi honetan era guztietako ekitaldi eta aktibitateak topa ditzakegu. Gainera, adin guztietako gazte bakoek izango dute zeregin egokia egun osoan zehar.

Goiz-partean bi taldeetan zatituko dira tren-geltokiaren inguruetan bildutakoak: 12 urte artekoak batetik eta 13-17 artekoak bestetik. Lehen-lehenik mendi-irteera txiki batetan zehar zenbait jokutan parte hartzeko aukera izango dute. Eguerdi aldean, bazkaldu aurretik eukaristia ospatuko dute guztiak batera Oianguko zelai miresgarrietan. Arratsean zaharrenak musika festibalak, antzerkiak eta bestelako ekitaldiez Oiangun bertan gozatzen ari diren bitartean, 12 urte arteko gazte bakoek Ordiziako enparantzan milaka joku ezberdinetan murgilduko dira.

Eguraldiaren desafioari aurre egiteko ere prest daude antolatzaileak (Goierritik: AAT). Euria bisitari bagenu apirilaren 12an Industriadeko pabiloi batetan ospatuko lirateke ospatzekoak (hori bai antolakuntza hori!). Eguna amaitzerakoan, egindako lagun berrien helbideak eskatu, negar malko batzu eta hurrengo TXIRRIN-TXARRANerako falta diren egunen zenbaketa.

Juanjo Balerdi



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxes: 880872. 20249

ITSASONDO

Besteek esana

❖ Ataungo ondarrea norentzat?

"Egin" egunkariak, otsailak 29, Idoia Arteagak idatzita, hauxe dio: "Ataungo udaltxean dagoen XVI. mendeko mahaia Gasteiza eramatea lortu du S. Martin Arartekoak".

A zer harridura nerea! Eta nork baimendu du Arartekoak, mahai hori eraman dezan? Egunkariak dioenez aurre-hitzarmen bat sinatu du Udalak Arartekoarekin, Ataunek inoiz mahai honen beharra izanez gero itzultzekotan. Nor da Ataungo Udala, herria kontsultatu gabe horrelako ondare bat kanporatzeko? Herrian nork du eskubidea herriarena den on-

dare bat, horrelako plenoko lau katuk baietza eman eta galtzeko? (...) Aitortzen dut neroni naitela aurrenekoa herriaren ondarearen nondik norakoa ez dakidana, baina horrek ez du bide izan behar mendeetan zehar gure arbasoek utzi digutena lau ur-

tetik behin udaletxetik pasatzen den edonork, ondare historiko hori honela galtzeko eskubidea edukitzeko, legeko eta etikoa ez izanik"

*Nekane Urdangarin,
"D.V.", 92-III-5.*



❖ Abaltzisketako Txantxoak berpiztu

"Dirudienez, Txantxoak gerra aurretik ere ezagutu dira, nere aita eta aritzen ziren. Txantxoek soldaduskako lagunen arteko "kinto" izenez ere jarraitu zuten, aldi batez. Gero, 15 bat urtetako etenaldia izan zen, 89an berriro ospatzen hasi ginen arte. Izan da aldaketarik lehengo eta oraingo Txantxoaren artean. Lehen, igandez hasten ziren, O ziren, eta azkenean asteartez asteartita eguna ospatzen zen, Abaltzisketako baserri guztiak pasatzen zizutzelarik.

*Jose Luis Zubeldia,
"Galtzaundi", 8. zenb*

Ba al zenekien?

D.V. Gaztea"-k zer zioen orain gutxi?: Segura Irratiak (Fm 87.7 eta 89.2 euskaraz emititzen duten irratia direla.

Arlote Irratia (FM 105- 888092 tfna.) hasi dela emititzen berriro? Hamabostero eta (gaueko 9etatik hamaiketara) arituko da txandakatzen programazio hau:

Astelehena: Perez-en Troika eta Mas vale metal en vano...; asteartea: Etengabeko borrokan eta Beasaingo barberua; asteazkena: Garraixika eta Yankis go home; osteguna: Elkartasunaren ahotsa eta Amnistiaren irrintzia; ostirala: Eutsi gogor, Abrete de orejas eta Tabernako barran

Ordiziako Arkarteko zubia (ikus aurreko alea) herri bidea zela? Herri-bideak inoiz ez direla utzi galtzen?

Segurako herrian gizonezko gehiago dagoela emakumezkoak baino? Alkatesak egun erdia libratzea eskatu zuela, baina PNV eta HBk ezetz esan zutela?

Zaharrak berri

Mutiloa eta Zerain meatzari

Gipuzkoan ziren meategien zerrenda osatzeko 1791ean egin ziren galderak erantzunez, honela zioten gutxi gora behera Zerain eta Mutiloako agintariak. Beraien meategietan, nahi zuten gipuzkoar guztiak atera zezaketela behar zuten mea eta inongo baimenik gabe gainera.

Karlistada borroka inguruan berriz, behin baino gehiagotan presoak izan ziren lanean meategi horietan. Esate baterako, 1837eko ekainaren 18an iritsi ziren Zerainera 26 preso, bertako meategietan lanean hasteko, une horretan beraietako aginduetara, presoak beraiek aukeratu bait zuten meategian lan egitea Lazkaoko gartzelan egotearen orde.

Imanol Elias, "D.V.", 92-III-6.

Telleri bat Seguran

Dirudienez, lehenengo aztarnak orain dela 15 urte egin ziren, baina benetan telleriaren nondik norakoa ez da aurreko arte aurkitu. Kortaberri auzoan aurkitzen da. Telleri honen ezaugarriak hauek ditugu:

Bi labe ditu 6 m. ingurukoak.

Teilatu txiki bat. Dakizun bezala teilak egiten ziren hemen. Buztin lurrarekin forma eman eta labe hauetan sartzen zituzten gogortzeko.

Espezialistak diotenez, telleri honek 300 bat urte izan ditzazke, eta inguru honetan gehiago ere izan daitezkeela pentsatzen da. (...) Beste telleri bat ere bazen Seguran garai batean, Omiño baserriaren inguruan zegoen.

"Berrizale, "Bidetxur", Segurako Aldizkaria, 1. zenb.)

Euskal Herrian Euskaraz erakundeak Beasaingo auzo guztietan euskararen erabilpenaren neurketa egin zuen iazko bukaeran. Orain dela bi urteko datuekin konparaketa eginez gero, 14 urte arteko haurrak gehiago egiten dute euskaraz, 15etik 24ra birtarteko gazteak gutxixeago, gutxixeago baita helduak eta zaharrak igoalt-su. EHEk dioenez, Egunkaria, Euskadi Irratia, Arrate Irratia, Argia eta ETB1-en euskarazko publizitatearen aldeko apustua txalotu behar da. Segura Irratiko publizitatearen %30a erdaraz, %50 euskaraz eta %20 elebitan omen

Ataunen izan zen batean, Joan San Martin, Arartekoa, XVI. Udaletxean zegoen XVI. mendeko mahai bat begiz jo zuen. Eskatu eta zeditu egin zaio, berriro bueltatzekotan. Istiluak sortu dira Ataunen hori dela eta.

Arriarango presan 57 metrutako pantaila bat eraiki da.

Beaसाingo Udalak hitzarmen bat sinatu du herriko elkarteekin.

Ekin euskarari erakusketa antolatuz Beasainen, pertsonaia berezi

bezala Ixabel Olano andereñoa izan zelarik.

CAFek 11.300 milioiko kontratua sinatuko du Catalunyako Generalitatearekin.

Beaसाingo zortzi zinegotzi epaituko dituzte intsumisoak laguntzeagatik.

Zeraingo Ostatu-etxean dago Gipuzkoako garai bateko gartzelik zaharrena. Duela 3-4 hilabetetik hona guztiz errestauratu dute gartzela. Ezaguna da Zerain aspaldian Araba eta Gipuzkoa arteko pasabide izateagatik, bolarien herria, "Petrillo"ren (Ikus GOIERRITARRA 5. zenb.) eta Goya pintorearen birraitonen sorterri izateagatik. Badu beste motibu bat gehiago Zerain herri dotoreak ezagunago izateko.

Bi mehatzari hil dira (bata lazkaotarra, beasaindarra bestea) hogeitapiku eguneko tartean Mutiloako Troia mehatzetan.

Goierrri haraneko industri-planu bat elaboratu du Diputazioak.

Ataungo San Gregorioko frontoiaren proiektuak aurrera darrai. Ezin izan bada besteak baino gutxiago.

Ataungo alkateak "Nondik" aldizkariarekin

izandako elkarrizketa publikatu bat kritikatu du.

Liernian bisitari ugari izaten badira Lere, Mutiloa bizilagunez husten.

Goierrriko Osasun Zentruan (Zumarragakoan) hobekuntzak egin bide dira.

Gipuzkoako Kultur Diputatua harriturik Ordiziako Kultur aktibitateen ugaritasuna eta mogimendua dela eta.

Herriko ura eta metala kentzeko lanak Gabirian.

Ataunen Andralizeta eta Idiazabalen Urbizu-berri baserriak erre dira denbora gutxiko epean eta taldeak ari dira herri horietan baserriak altxatu eta kaltetuei lagundu nahian, bonoen bidez e.a.

Abaltzisketako txantxoak (jantzi bereziz ateratzen diren 8 dantzari eta bi mozerro) berpizten doaz 89.etik hona, ihauterietako martxoak 1 egunez. Gaur egunean holakoak oso gauza berezi bezala hartzen baditugu ere, garai batean, gerra-aurrera arte oso arruntak omen ziren Mozorroak eta Txantxoak. Goierrialdeko herri gehienetan egiten omen ziren "Otsobilkoak". Iztuetaren garaian ihauterietan ohizkoa zen ostegunez Jorrai dantza eta igandez Gizon dantza dantzatzea.



Zeraingo estatuetxean.




Estetika guztia

SENPERE ZENTRU KOMERTZIALA

88 15 50 Tfnoa. BEASAIN

Masajista
Tituludunak

Minaz ez egon



Aurrez
dei
ordua
hartzeko

KIROMASAI

Juniors Erropadenda

Santa Maria, 13 ORDIZIA

Telefona: 16 12 39

Loinazko San Martin

Aldizkari honetako lankide batek, Loinazko San Martinen jatorriaz goierritarrei zerbait adierazteko eskatu dit, izan ere, gaur egun gazte-jendeak ez duela honen ezagutzarik izango eta. Ez naiz ni agian egokiena izango lan hau egiteko, baina lerro batzuetan saituko naiz gauzarik garrantzitsuenak aipatzen.

Askotan eta santuekiko arreta, guztiok ere asko galdu dugun arren, santu honen jatorri-kontu hau txantxetan eta berriketan hartua izan da Goierriin bertan ere eta gehienetan oso elizkoia ez den jendearen aldetik gainera. Beasain/Bergara artean izandako auziak direla bide, jendeak ez bide du beste erreferentziarik 1597-II-5ean (6an hango ordu-tan) Nagasakin (Japonian) erahil zuten 31 urteko frantziskotarraz.

Historiako pertsonaia legez ordea, zorroztasuna eta errespetoa zor zaizkio besteak beste, beraz, serio eta sakon hartu beharreko gaia da eta ildo horretatik jo nahi nuke.

Besterik ere baden arren (bederatziur-
ren, bertso eta bestez gainera) erdarazko bi libururen aipua behintzat egin beharra dago. "San Martin de la Ascension y Loinaz. Mis puntos de vista en torno a un viejo pleito" (1962). Egileak: Frai Luis Villasant eta Frai Jose Inazio Lasa. Eta "Beasain patria de San Martin de Loinaz". Egilea: A.Garmendia de Otaola. Inor interesaturik balego, Beasaingo Apaizetxean galde lezake.

Datu Nagusi Batzuek:

1566-VII-16: Amunabarro baserrian jaio zen.

1597-II-5: Nagasakin (Japonian) erahil zuten.

1627-IX-14: Urbano VIII. Aita Santuak Dohatsu izendatu zuen.

1862-VI-8: Pio IX. Aita Santuak Santu izendatu zuen.

1664-VII-7: Alejandro VII. Aita Santuak Loinazko San Martinen Kofradia eratzeko baimena eman zuen eta 1666an eratu zen.

Bestalde, familiak eskatuta, Amunabarro jaiotetxean kapera prestatzeko baimena eman zuten Erromatik. Dohatsu izendatu ondoren, 1633an Baseliza eraiki zen gaur izen bereko Parrokia dagoen lekuan.

Gainera, aldare, koadro eta gisako asko egin ziren garai haietan hainbat leku des-



berdinetan eta gaur egun ere hor diraute Goierriko, Gipuzkoako eta munduko beste hainbat lekutan. 1642an, Urbano VIII. Aita Santuak, Beasaingo Zaindari izendatu zuen ofizialki.

1628-IV-26an Seguran egindako Gipuzkoako Batzarre Nagusien bileran, Beasaingo ospakizunetarako zenbait erabaki hartu ziren eta data honetatik 1740. urtera bitartean, 82 aldiz aipatu zen bilera horietan Loinazko San Martinekin zerikusia zuen zerbait, 1657tik lehenik eta 1847tik gero, Baselizaren eraikuntz eta jabe-gonpromezuak ere beren gain hartu zituzten Gipuzkoako Batzarre Nagusiek.

Tartean ordea, 1740an, Andres Orbe bergararra, Espainiako Erresuna eta Jaurgu guztietako inkisidore nagusi zenak, 1638az geroztik Auñonen zegoen errelikiaren zati bat (Auñonen egin zituen San Martinek botoak) bereizi eta idatzita zegoenaz besteko testua jarrita oparitan eskaini zion bere jaioterri Bergarari. Handik aurrera hasi ziren gatazka nagusiak.

Lau errekurtsu edo helegite bideratu zituzten ondoren Erromara (1741, 1862, 1869 eta 1872an). Beti ere ebazpen bakarra eta horren berrespenak jaso ziren erantzuntzat (1867, 1869 eta 1872an) "Martin Igokundekoa, Loinatz familiakoa zela eta Beasainen jaioa". 1928an berrirori errekurritu zuten bergararrek eta Erromak lehenari so egiteko erantzun zien.

Bestalde, santu egin zutenean (1862-VI-9) Erroman izan ziren bere ahaideen ondorengoak ziren Eusebio eta Rosalio Muzkiz anaia nafarrak eta "L'Osservatore romano"-k, Vaticanoko egunkari ofizialak, berorien aipamena egin zuen.

Loinazko San Martinen familiako adarren berri oso ondo gorde da eta besteak beste, Nafarroan bederen ondorengo anitz ditu adar bat edo bestek. Gainera ez da ahaztu behar, garai hartan Beasain,

Iruñeko Apezpikuaren esku-menpekoa zela eta 1862an hiru probintzientzako Gasteizkoa sortzean sartu zela Gasteizkoan.

Gai honekiko dokumentu nagusiak beraz, Iruñean daude. Goierriko herrietatik ere erromes etortzen ziren Beasaina eta Ordizian, Artziprestegoa dagoelako, lehen berria hara iritsi zenez, kanpaiak jotzen dituzte ot-

sailaren 5ean.

Santuak berak idatzitako eskutitzak ere badira eta liburuetan argitaratuta daude. Garaikideen aitorenak ere ugari dira anitz lekutan. Berriki adibidez, On Martin Mendizabal frantziskotarrak, dokumentu anitz aurkituak ditu eta lehenak lehengo, horietako batean berak aitortzen bide du: "Igartzakoa naiz, Tolosatik lau legoatara".

Laburbildu eta bukatzeko, Aita Jose Inazio Lasa frantziskotarrak lehen aipatu dudan liburuan emandako xehetasun hauek eskainiko dizkizuet:

Beasainek

Jaiotz agiri argi, garbi eta benetakoa du inolako tatxarik gabe

Alcalako ikasketa-matrikula ofizialki ziurtatua du.

Batere mesprezagarriak ez diren historialari eta lekukoen berri historikoak ditu.

Familiakoen, ahaideen eta herritarren lekukotzak ditu.

108 urtetan inork ez zuen zalantzan jarri besaindartsuna.

Erromako erabakia eta berrespen guztiak.

Bergarak

Aurkeztutako jaiotz agiriak emendakin, eta aldaketa-susmo Isiltasun osoa.

Hemendik kanpoko arrotz batzuen lekukotza anitz ditu Landecho jeneralarena eta San Felipe untzikoena salbu.

Inolako berririk ez.

Isiltasun osoa.

Ezer ez.

Guzti hau eta askoz gehiago ere badago Nagasakin hil zuten 31 urteko beasaindar santuaz. Hortik aurrera jakin nahi dezanak, badaki zer egin behar duen: irakurri, ikertu eta ebatzi.

Andoni Sarriegi Eskisabell

HARIZTI-PAGADI ETA SAIL ZUHAIZGABETUETATIK GAURKO PINUDIETARA

Goierriko Basoak

JAKIN BADA KIGU, gizakiaren eraginik jaso izan ez balute Goierriko mendi eta basoek gaurkoaren itxura nahiko ezberdina erakutsiko luketela.

Izan ere, gure jatorrizko basoak pagadiak izango lirateke inguru menditarrean (500-600 m gainetik), hariztiak gune muinotarrean (500-600 m azpitik) eta artadiak zenbait eremu berezi eta txikiagotan (oraindik ere Ataunen ikusten direnak, kasu).

Baina suposa daitekenez, Goierriko basoek, denboraren poderioz eraldaketa haundi ala txikiagoak jasan zituzten. Neolitoan dagoeneko, lehen artzai haiek hasi ziren suaren bitartez artaldeentzako larreak egiten. Mendeetan aurrera, luberriak behar zituzten nekazariek jarraituko zioten basoen gorritzeari.

Erdi-Arotik aurrera, ikazkintza eta untzigintzarako egurra eta materiala ateratzen ziren etengabe Goierriko basaditik. XVIII. mendekoak dira orain arte gure eskuetan ditugun lehen datuak, 1784ean Espainiako "Marina Real"ak bultzaturiko baso-inbentarioari esker. Erakunde honek arreata berezia erakutsi zuen bere it-

HERRIA	Azalera (ha.)	Basoa (ha.)	Basoa (%)
Altzaga	160	50	31
Arama	136	46	34
Ataun	5.880	3.144	43
Beasain	3.002	868	29
Enirio-Aralar	3.443	3.443	100
Ezkio-Itsaso	2.126	152	7
Gaintza	582	1	0
Gabiria	1.476	437	30
Idiazabal	2.959	167	6
Itsasondo	999	323	32
Lazkao	1.162	189	16
Ligorreta	861	577	67
Mutiloa	857	123	14
Olaberria	687	230	33
Ordizia	573	155	27
Ormaiztegi	674	133	20
Segura	923	772	84
Zaldibia	1.679	232	14
Zerain	1.057	225	21
DENERA	29.236	11.267	39

sas-untziteria eraikitzeke egur-gaiak eskeintzen zituzten baso-sailak kontrolpean izaten. Goierriko hainbat Udalerrri, baso-aberastasun aldetik jurisdizio interesgarritzat jotzen ziren 1748ko Urtarrilaren 31ko Mendien Erret Ordenantza Orokorrean. Honela, Gipuzkoako Aldundiak udalerrri bakoitzari bere basoei buruzko txostena eskatu zion, zuhaitzen kopurua, hauen ezaugarriak, adina, espeziea, etab. adieraziz.

Inbentario honi egotz dakizkiokeen hainbat erreparatu alde batetara baztertuz, suposa daiteke sasoi hartan Goierri 800.000 haritz, 4.500.000 pago eta 250.000 gazatainondo baino gehiago zeudela besteak beste. Honek esan nahi du, Eskualdearen %39a gutxi gorabehera arbolez estalia aurkitzen zela. Aipa dezagun batazbeste Gipuzkoaren kasuan %25a zela azalera zuhaitzua. Herriz herri banaturik, 3. taulan ikus daitezke datuok.

Basoen atzerakadaren eragileak

XVIII. mendetik aurrera basoen desagertze-joerak etengabe jarraitu zuen eta atzerakada honen eragile nagusiak honako hauek suertatu ziren.

Burdinolak: XVII, XVIII eta XIX. mendeetan garrantzi haundiko bihurtu zen ikatzegurraren kontsumoa, basoetan sarraski galantak eragin zituen. Goierriko era berezian pairatu zituen pago-egurraren (batez ere), gehiegizko ateratzeak. Izan ere, gure basoetan egur ugari, eta Zerain eta Mutiloako burdinmeategiak genituen. Honek bultzatu zuen Beasaingo Igartza, Olaberriako Iurre eta Lazkao Iribe bezalako bur-

dinolen agerpen eta indartzea.

Haritza eta gaztainaren gaitzak: 1870etik 1920ra baso aberastasunaren desagertzean parte hartu duen beste faktore bat da.

Nekazaritzako luberriketak, untzigintza, inaurkinean ateratzea, gehiegizko artzantza, artzantzak eragindako baso erreketak: mendietan kalte larriak sortu izan dituzte guzti hauek ere.

XX. mendean nolabaiteko baso-iraultza gertatu da, bai Goierri eta bai Gipuzkoa osoan. Iraultza honen ezaugarri nagusia mende hasieratik 50.eko

hamarkadararte eman zen baso-sartzeen ugalketa izango da. Garapen hau, bat egiten duten bi gertaeren emaitza izan zen:

Foru Aldundiak mende hastapenean martxan jarri zuen baso-sartze politika, hostozabaldun basoen atzerakada larriak eta alferrik zeuden otalur-sail zabalak esistentziak kezkatuta, espezie kanpotarren (koniferoak gehienak) erabilera bultzatu zuena.

Probintziaren industrialitze eta hiritartze aurrerakorra, zeinak basoaren egin-kizunaren aldaketa bat ekarriko duen landa-espazioaren barruan. Nekazaritzaren espezialitzeak eta modernizatzeko, nekazal eremuaren gutxitzea, eta ondorioz, baso-sailen zabaltzea onartuko du. Bestalde, industrialitzeak


baso-gaien eskaera haundituko du eta intsinis pinuaren aldaketak inbertsio erakargarri bihurtuko dira baso-jabe-entzat.

60.eko hamarkadako industri-eztandak abiadura haunditu zion garapen


honi, eta noranahi hedatu ziren pinu-aldaketa hauek, Goierriko paisajea sa- konki itxuraldatzeraino iritsi ziren.

Aurreko eragile eta gorabehera guz- tien ondorio da gaurko gure basoen egoera. Gaurko egoera honen berri iza-

teko, iturri ezinobea dugu 1986ko E.H.K.A.ko Baso-inbentarioa. 1784ko inbentarioa 1986koari parekatzen ba- diogu (ikus sektorekako grafikoak), ai- patzea merezi duten hainbat ondorio isur daitezke:



1. Grafikoa. Goierriko lur-azaleraren erabilera 1784ean



2. Grafikoa. Goierriko lur-zaleraren erabilera 1986ean

Alpamena merezi duten ondorioak

A. Lehenik eta behin, azken 200 urte hauetan, basoen azalera ia bikoiztu egin dela ikus dezakegu, %31tik %61era pasa baita. Gehikuntza hau, noski, zuhaitzu ga- beko azaleraren bizkarretik egin da, hau da, basoek nekazal lurari eta sastrakadiari jan dizkiete lurak.

B. Basoen azalera bikoizketa hau, kan- potar koniferoen erabileraren bitartez lortu da, bertako zuhaitzez osatutako sailek atze- raka egin duten bitartean. Gaur egun, Goierriko basoen %66 inguru dira konifero- sailak. Dena dela, pinudiek bertako hosto- zabaldun basoak ordezkatu dituztenaren pentsakera zabaldua okerra dela esan dai- teke, Goierri dagokionean behintzat. Gehienera azaleraren %18an gertatuko

baitzen horrelakorik. Gainontzeko %28an nekazal lur, sastrakadi eta horrelakoetan sartua izan dela suposatzea delarik zilegie- na.

C. Hostozabalen artean jetsiera erlatibo haundiena jasan duen espeziea, inongo za- lantzarik gabe, gaztainondoa izan da, be- rrehun urte hauetan %87an gutxitu baita es- taltzen duen azalera.

D. Bi hostozabal nagusiei dagokionez, hau da, pagoa eta haritza, bien artean %34a inguru suposatetik, %20ra pasa dira, behe- rakada nabarmena haritzarena izanik (%9tik %3ra).

Mikel Sarriegiren "Basogintza Goierri- n" entsaiutik (I. "Geriako Idazlan-Sariketa") egi- leak aukeratutako pasarteak.



Mikel Sarriegi

beasaindarrak 26 urte ditu.

Madriilen Mendi Injineru karrera amaitu zuen. Horrezaz gain, dantzari iaioa eta idazle oparoa dugu.

KATTALIN

ERRETEGIA SAGARDOTEGIA



Antzizar auzoa, 4. "Biona" etxea. (Polideportibo ondoan)
889252. BEASAIN

MUJKA oinetakoak

Emakumezko, gizonezko eta haurrentzat

Nafarroa etorbidea, 11
Tfna: 88 27 16. BEASAIN

ALOSKA

Edergintza-Usaindegia



Domingo unanue Plaza, 2
20240 ORDIZIA
TEL. 88 24 10

HARLORE BITXITEGIA

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2
ORDIZIA

Tfna: 88 96 17

ZALDIBIAKO PLAZAK JASO ZUEN ALZAAREN ODOLA

Urrak eta intxaurrak betetzeke zeuden batekoa

UZTAILEKO EGUN sargaritsu horietako bat izango zen apike eta eguzkia gal-dan zeru erdi-erdian. Edo akaso, ipar-hegoen burrukak astinduko zituen Biandako txarako pago-akaziekin Albisu-basoko gaztai-nondoak.

Aurreko egunean Ataungo mugetan har-rapatu zuten sobra ere J. Joakin Alzaa, karlisten jeneral hura eta Amundaraindik behera Lazkao-etxe eta Auntxitatik barrena Aistran-erreka guztian zalditeriaren perra-hotsa aditu zen, lur eta bihotzaren eritmuua hausten duen sokor-jotzearena baino askoz ere goragotik.

Baserritarrek aztoratu egin ziren. Bazen inguruetan lehengo karlistadan gerlata irtenda-ko boluntariorik. Komedoreko kutxa gainetik, azken afarikoarekin batera, Don Carlosen erretratua kendu gabe zeukanik. **Asko eta asko Bergarako besarkadaren ondoan et-situak;** beste asko konformatuak, pakerik txarrena onena delakoan. Batzuk azken gara-garrileko altxamendu hark aurrera egingo zuelako itxaropenez. Guztiak, ataritik eta so-roetatik begira.

Gizon printzipalen bat zeramatena inolaz ere barreiatua zegoen ordurako lehen karlista izandako Urbistondo jenerala zebilkola atzetik Alzaari. Nekez aurkitzen da etsai maltzurragorik alde aurretik kide izandakorik baino eta Urbistondo hark ondo jakin karlisten ibilkerak nolakoak izan ziren eta nolakoak izan zitezkeen. Mendirik-mendi eta ibarrez-ibar pertsekatu ondoren, azkenean uztailleko igande hartan harrrapatu omen zuen Salbador Damato koronelak.

Etsipenak jota egonda ere herritar askok igerriko zuen gertakizun hura ez zela oso berri-ria izango, ordurako lztueta hilda bait zegoen eta Gipuzkoako kondairaren azken hitzak jarriak; Lardizabal apaiza, berriz, eskola eta eleizetako kontuak eskribitzera emanago, edozein moduz, ezen eta ez egunez-egune-koetara. Ondorengoek, zuhur nola zoro, jakintza kaxkar eta irudimen haundiz jaso behar garai zaharretako aztarrenak.

Hurrengo egunean, egunek bere gorpila osatzen bait dute inork bere bizitza koloka duenean ere, garaia jotzen arituko ziren base-ri gehientsuenetan, gerra eta gezur urte haietan, euskaldunek ezagutu zuten mixeria gorritik ahal zen moduan atera beharragatik.

"..., Monarkiaren ba-tasun konstituzionalarent-zako kalte gabe

Hala ere, gizon bat bakarrik zegoen desti-nuaren zitalkeriaren au-rrean. Alzaak esamina eginez gogoratuko zi-tuen Bergarako besarka-daren ondoren ihes egi-tea delibera erazi zioten arrazoia, egunetik egu-nera garbiago agertzen bait ziren, Korteetako agindu ezagun harekin:

"Onartzen dira batasun konstituzionalarent-zako kalte gabe" eta gogoan zuen, kuantu, nola batere konforme egon gabe onartu zuen, hala eta guztiz, Katalunia batetik eta bestetik Nafarroa eta Baskongadako hiru probintziako altxatuen artean zubi-lana egite-arena, estrin-estrinetik alferrik eratutakoa ematen zuen 1848ko altxamenduan.

Azken orduetako bakartatea ez zen hilabe-te haietako bakartatearen errematea baino, noizik eta behin jeneralak heriotzera eraman eta gehientsuenetan bere burua gizaldiz- gi-zaldiko herioan ikusten duen herriaren bakartatearen luzapena. Giltzapean kezka batekin lotu zuen hurrengo. Berak, ez bait zen alfe-rrik Zuzenbideetan doktore eta Oñatiko uni-bertsitateko katedradun izana, ondo zekien epaitzen ez bazuten ez zela ezer legezko, bai-na ezer gutxi zeritzon indarra daukana dauka-nak erabakitzen du ordua eta halaxe erabaki zuten Alzaarena ere inongo epaiketarik gabe.

Asteleheneko edozein ordu izan zitekeen egoki. Giltzapetik ateratzerakoan min egin zioten bai uztailleko egun argitsuak begietan eta baita bere heriotz orduaren berriak ere bihotzean. Zaldibiko enparantza edozein herri txikitakoa zen. Altxatzea erabaki zuenetik, he-riotz ikasgaia Zaldibikoan egokitu zitzaionera-ko beraz, ederki zekien edozein plazak jaso zezakeela bere odola, eta ziurrenera gehitxo maite izan zituen eleiza eta herri eskubideen ikur zen udalaren ateak buruz-buru zituela hilko zutela.

Ihes-bide baino gehiago zeruko bidearen bila begiratu zien Karreraenea, Albisu eta Olanoneari, Kanpaindegi eta Zubiaurreri.



Bazituen lagunak gehientsuenetan. Tontorretan lbargunek eta Biandak arretaren-arreta betirako geratuak ziruditen eguzkipe-an Olanoneko atarian jarri zituenean.

Auskalo uztailaren hiru hartan artean es-kolumerik zebilen eta Zubiaurreko horretan aritzen ziren. Auskalo gizon bat nola hiltzen zuten ikustera eraman zituzten. Herriko print-zipalena behintzat jakinaren gainean izango ziren. Komeniko zen igoal, herritarren eskar-mentu, ahalik eta jende gehientsuen biltzea; baina, bestalde, ondo jakingo zuten herrieta-ko jendea, kapitalekoa ez bezala, karlista zela bihotzetik, foru-zale eta ez zitzaien akaso haien sentimenturik oldartzea komeniko.

Ordua iritsi zenean, zeudenak zeudela, sol-daduen begiek bat egin zuten fusilen beste-kaldean zegoen gizonaren bihotzean. Alzaak azken aldiz begiratu zuen ingurura, inoren begietan ezagun zitzaion herrimina nabaditu alde. Hurrengo kolpean fusilei zerien hotza iritsi zitzaion aurpegira eta otoitz egin zuen aurreko egunetan jandako uztapikuaren za-porea gogoratuz, otoitz uztailaren oraindik ur eta intxaurrak betetzeke zeudela pentsatuz.

Instant batean, egin zuen lurrera, baina aditzen zuen, tiroen ziztua ahuldu artean, ihesean txoriek ateratako zalaparta. Baita, be-har bada, zalapartarekin nahastu zen zaldi-hots presakatia.

Urrutiko baserrietakoek Alzaa aitarenaz agurtzen ari zirela eman omen zion bihotzak buelta Muertzako errebueltan barkamenare-kin zetorren zaldunari. Azken ahaleginean eragin zaldiari eta Zubiaurrenekoan erreka pasatuz, Kanpaindegi eta Karreraneke tartetik

sartu zen, eleiz-dorrean kanpaiek sosega ez zezaketen minarentzako konformidadezko amaiera-ezkillak jotzen zituzten unean.

Ordurako erabakia zegoen garagarri eta uztalean altxatutakoentzako barkamena, baina garai hartan Billafrankatik Zaldibirako kotxe-biderik ez eta alferrik etorri zen ahal bezain bizkor zalduna. Hala esaten dute oraindik zaldibitarrek, bere izena eta izanaren nondik-norakoa erabaki ezinik zaldiaren irudiarekin amets eginez.

Neronek sarri pentsatu dut zer gerta zate-

keen garai hartan telefonorik izan balitz edo sikiera bideak hobeak izan balira. Coloni Ameriketako atea edota Newtoni grabitatearen legea erakutsi zion kasualitateak ez zuen salbatu nahi izan Alzaa.

Askotan pentsatu dut, abertzaleak buru-belarri bere historia ahazteko ahaleginetan ikusten ditudanean, zer gertatu izango zen Euskal Herrian garai batean karlistek berea ahaztu ez balute.

Askotan, izan ere, gauza asko pentsatzen dira jira-biraka baino gehiago amilka mugit-

zen den mundu zahar eta berri beharrek honetan eta gero kasualitate batek, herriko festetako zerbait idatzi beharrak edo kafea hartzerako goazenean etxe zaharretara begira jartzeak askatzen ditu barruko indarrak. Esaten dute, mundua mundu denetik —eta ondo esanak ondo aditu behar omen dira gaizki esanak barkatuz—, bidera atera direnak bakarrik harrapatzen dituela, izatekotan, zoriak.

Tere Irastortza

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik

OGITARTEKOAK

BAZKARI eta

AFARIAK



LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

Kirol jantzieta
espezialistak

kimi kirolak




Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Jatetxea



Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-10C Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

EHNE ETA GOIMEN-EKO LEHENDAKARITZAK UTZI BERRIAK,

Alberto Aldasoro:

*"Militantzia
maila handiak
ere badu bere
muga"*

Idiazabalgo Egileor baserrian jaio zen orain 32 urte aldasorotar hau. Baserritarra da Alberto ezer baino lehen. Gipuzkoako Lurraldeko Euskal Herriko Nekazari Elkarteko eta Goierriko Mendi Nekazaritza Elkarteko lehendakaritzak utzi berriak ditu. Aproposa suertatzen da garaia, guzti horretaz balantze bat egin dezan

Herrigintzan eta sindikalgintzan buru-belarri sartuta egin ditu bere bizitzako urterik gehienak. "Militantzia maila handia daukagu, baina denak du bere muga", aitortuz, garbi utzi digu Albertok oraingoz bere bi anaiekin hitz egin eta etxean, Egileor baserrian, zerbait ekin nahi diola.

EHNE eta GOIMEN

Bere ustez, Presidenteak, EHNEko presidenteak, baserritik bizi dena izan behar du, nahiz eta "sarkrifizio handia den hainbeste urte sindikatuari eskeintzea"

Zaila egiten zaio lau urte hauetako lana laburtzea, baina bere ahalmen eta indar guztiak Hego Euskal Herriko lau probintziak bat eginda, asmo eta helburu bera bultzatzeko ejekutiba bakarra sortzeko erabili ditu. "Oso probintzialistak izan gara beti eta azkenean lortu da. Bat egin da goaz orain", adierazi digu.

Ifarraldekoekin "harreman pertsonalak izaten ziren beti, baina azkeneko bilerak noiztik noiz egin

eta guzti hori finkatzea lortu dugu".

Sindikatu oso gaztea da EHNE. Hamalau urte bete ditu "eta hama-bostgarrenean festa giroko zerbait egingo dugula esanda geratzen da", oraintxetik.

Une garratzak ere izan ditu EHNE-k. Ez da denbora asko oraindik, zatiketa baten ondorioz, ENBA, Euskal Herriko Nekazarien Batzarra sortu zela. Zuzen-zuzenean bizi izan zuen guztia Alberto Aldasorok eta buru-hauste ugari eman ere eman zizkion. "EAJ-PNV-ek egin duen umea da ENBA. Berak ez dit errukirik ematen. Ekintza honek nahastu dituen nekazariak ematen didate erruki pixka bat", diosku.

Lehendakaritza utzi arren, ez du erabat utziko sindikatuko lana Aldasorok. Tolosan osatu duten ejekutiban, Goierriko ordezkari izango da bera. Eta bere kargua hartu duen Balentin Gabilondo elosuarri ere martxa hartzen lagunduko dio piska batean.

Era berean, Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartean, GOIMEN-en ere, lau urte egin ditu presidente


karguan. Udaletxe eta Diputazioarekin, kooperatiba eta elkarte askorekin batera lan egin du EHNE-k GOIMEN-en. Alberto zen presidente eta EHNE-ko ordezkari eta esan behar da eztabaida asko izan dela GOIMEN-en baitan.

Ordiziako bulegoa dela eta (beste bost bulego daude probintzian), kontua ez zen beste lehiatila bat irekitzea, "izal" darren esanetan. Programa orokorrak egiterako orduan, hauek proiektu soil izateko arriskua izan dute.

Hala ere salmenta zuzenari buruzko ikerketak egin dira eta Ordizian artzaintzako gaztak ontzeko kamara bat ere bai (Ordizia Gaztandegi Koop.-aren baitan, ikus GOIERRITARRA, 20. zenb.). GOIMEN-ek azpiegitura bultzatu izan du gehienbat, azpiegituran zerbitzuak, bideak eta ekipamenduak hobetzea izan direlarik helburu nagusiak.

Europa eta baserria

Egun, Europaren presioa gainetik kendu ezinda bizi da baserritarra.



Aldasorok ez du erabat utziko EHNE: Goierriko ordezkari izango da.

"Ilusioz oso baju gaude. Prezioen jeitsiera guzti horiez gain, nahi adina ere ezin dugu produzitu. Gazteentzat une oso latza da. Gazteak alde egiten ari dira baserrietatik. Gu, oraindik, hiru anaia geratzen gara etxean. Profesionalak gara. Beste diru iturririk ez dugu. Gurasoak, biak erretiratuta, baina edozein hogeitamar urtekoak bezala egiten dute lan". Jubilazio egokiak behar dituela

Baserriko lanetatik bat aukeratu behar balu, ganadua aukeratuko luke Albertok: "Baratze, fruitu eta hoiek ezer gutxi esaten didate. Gehien gustatzen zaidana behia da. Ez nuke ardia aukeratuko. Zaldia ere asko gustatzen zait. Orain ikastaro bat egiten ari naiz eta hori ere eskeini dezakegu gure baserrian. Lurrak baditugu eta izan liteke".

Behiekin egunero hitzegiten du. "Ganadua ahotsez manejatzen da. Zuk eskeintzen diezuna biderkatuta jasoko duzu behiengandik".

Behia hainbeste maite duen arren, ez du oraindik "Vacas" pelikula edo "Behi euskaldun baten memoriak" (berriak biak ere) irad

"Europaren presioa kendu ezinda bizi da baserritarra"

kurtzeko astirik izan. "Irakurtzeko gogo handia dut eta denbora falta", aitortu digu.

Guztiak esaten hasiz gero, beste pena handi bat ere badu Alberto Aldasorok. Klenbuterola dela eta ez

dela, "orain galdu dugu gure haragi sanoa kanpoko beste klenbuteratu horrengandik bereizteko aukera paregabea. Administrazioak bultzada serio bat eman ez diolako", galdu dugu aukera hori.

EHNE sindikatuan izandako karguak eman dio ospea edo horregatik ezagutzen du jendeak batez ere Alberto, baina Goierri, eta batipat Idiazabalen betidanik izan da pertsona oso ezaguna eta herrikoia. Kantari eta bertsotan ere makina bat aldiz ikusi dugu herriko edozein ospakizunetan. Zaletasuna txiki-txikitik omen datorkio:

"Txikitik, aldameneko baserriko sukaldean aritzen nintzen bertsotan Xixilio, Joxe eta Segundarekin. Gero Goierriko lanbide eskolara joan eta han ere Balentxi hamaika aldiz esan zidan hasteko eta hasteko... Baina orduan baserriko mutil lotsatiak ginen gu eta..."

Ane Albisu
J.A.



ORDIZIA
GAZTANDEGI
K O O P.

Jose Miguel Barandiaran Enparantza

Telefona (943) 88 94 20

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00
Kale Nagusia, 20 BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA



ELOSEGI-ARACO Ardotegiak

OLABERRIA-LAGUARDIA



Liernia 20214 MUTILOA
Tfno 80 16 99

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA, BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36 ITSASONDO



SOLOZABAL AUTOESKOLA PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 - ORDIZIA

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
 - Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan
- Tfnoa: 88 83 31



ERGOIENA AUZOA

ATAUN




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



- Urdaiazpiko eta hestekien banatzailea
 - Liburu eta konpakto denda
- Urdaneta, 52 Tfnoa.: 88 06 40 ORDIZIA

Txindoki

Uff!! Zenbat
kostatzen ari
zaigun.
Dirudi-
ena
baino
gogorra-
goa da.

LASAI!!
Ba Karrik
hasieran da.
Piskanaka,
piskanaka...
azkenian
lortuko
degu.

Hi, gazte-
ago haizenez
saiaitu hodi
lehenik.
Ittotzen
ari naiz!!

Beida!,
beste aldetik
saiatzen
bagara
errezago
atera ko
dela ustet.

Arrazoia
duk. Badoo,
badoo!!

Ikusten
dezue. Nik
esaten nuen

DUNGA!
DUNGA!

AMAIERA.

Wentxi

JOXE RAMON IZAGIRRE: Estatuko Txapeldun bigarrengoz Maioraren aginduetara

Lana eta sakrifizioa dira Joxe Ramonen orain arteko txirrindulari urteak hoberen definitzen dituzten ezaugarriak. Ospea azkenaldi honetan iritsi bazaio ere, makina bat zailtasun gainditu behar izan ditu Ormaiztegiar honek, bere lehen soldataz konpetiziorako bizikleta hura erosi zuenetik.

*"Gogoratzen dut gaztetan, karreteran
nenbilenean, Jokin
Mujikaren parean ibiltzen nintzela..."*



Nolatan aukeratu zenuen ziklokrosa?

Bueno, egia esan, hasi nintzenean, eta badira 13 urte, biak egiten nituen; ziklokros denboraldia amaitzean karreteran aritzen nintzen. Gertatzen dena da karreterak fondo haundia eskatzen duela eta hori kilometro askoko entrenamenduak eginez hartzen da. Nik, garai hartan lana zela eta ezin nion entrenatzeari hainbeste denbora eskeini. Honela, piskanaka karretera baztertzen joan nintzen eta ziklokrosean buru be-larri sartzen.

Honekin batera kontutan hartu behar da garai hartan ziklokrosaren mundu hortan Maiora punta-puntan zebilela. Nik, idolo edo antzeko zerbait bezala neukan eta bere markak berdindu nahiak ziklokrosa serio hartze horretan lagundu zidan.

Lana aipatu duzu. Badirudi erabateko garrantzia izan duela lanaren gai horrek zuegan. Zeln neurritan baldintza-

tu zaitu?

Erabat. Ni oso gazte hasi nintzen lanean, 14 urterekin. Ikastea eta liburu kontu hoiek ez zitzaizkidan batere gus-tatzen. Hori dela eta oso denbora gutxi geratu izan zait beti entrenatzeko eta horrela ezin da miraririk egin. Gogoratzen dut gaztetan, karreteran nenbilenean, Jokin Mujikaren parean ibiltzen nintzela eta jarraitu izan banu agian talde haundiren batean egongo nintzateke gaur egun. Baina hori orain pentsatzen duzu, gazte zarenean ez diozu garrantzi gehiegi ematen.

Dudarik ez afizioz zabiltzala honetan.

Bai bai, afizioz. Fabrikan zortzi ordu sartu ondoren egin behar izaten ditut nire saioak. Etxera lehertuta iristen zara, hizketarako gogo gehiegi gabe. Ziklokrosak ekonomikoki lagundu egi-ten dizu, baina ez dizu jaten ematen eta familia aurrera atera behar da. Beraz, afiziorik gabe ez dut uste kirol honek duen gogortasuna eta eskatzen

duen sakrifizioa jasan daitezkeenik.

Askok ordea karreterako txirrindularitzan soilik ikusten du gogortasun hori. Horrela al da?

Baliteke kirol hau ezagutzen ez dutenek hori pentsatzea. Baina kontutan hartu behar da denboraldi hasierara indarren iristeko ezin diozula urte osoan entrenatzeari utzi. Nik adibidez hamabost egunetako atsedena hartu nuen denboraldi amaieran eta berriro ere entrenatzen hasi naiz. Orain afizionatuekin korrituko dut karreterako denboraldia, konpetitza beharrezkoa bait da, entrenamentuen erritmoa ez da aski.

Bestetik, karrerak ere nahiz eta motzagoak izan denbora guztian topera joan behar duzu, ez dago atsedenerako tarterik; eta lokatza badago oraindik gogorragoa da.

Azken bi urteetan estatuko txapelketa eskuratu ta gero beste era batera ikusten al di-

“Ziklokrosak ekonomikoki lagundu egiten dizu, baina ez dizu jaten ematen”

tuzu gauzak, serioago hartzeko asmotan edo?

Ez, nik argi daukat dedikatzen naizenerako ezin gorago nabilela; hor dagoela nire muga. Egia da duela urte batzutatik hona nire maila dexente igo dela, denbora gehiago eskeini diodalako hain zuzen ere. Aurrerantzean maila hortan mantentzen saiatuko naiz, oraingo martxan. Nire asmoa beste hiru urte edo jarraitzea da, ea Maioraren txapel kopurua berdintzen dudan, nahiz eta ia ezinezkoa dela uste dudan. Gainera urteetan ere aurrera noa.

Etorkizuna beltz

Etorkizunari begira ezkor agertu zaigu Ormaiztegiakoa. “Federazioak ezer gutxi egiten du ziklokrosaren alde, eta horrela ez dago zer eginik. Geurean, edozein kirolean bezala, gaztetan landu behar da kirolaria, eta hori hemen ez da egiten”, diosku. Errezeta magikorik ez badu ere, bertan figura batzu sortzeak lehen zuen indarra berreskuratzea eramango luke kirol hau; zirkuitoen betekadek merkatal etxeen inbertsioak ziurtatuko lituzketelarik.

Mikel Leunda

Bi lerrotan

☛ Gipuzkoako saskibaloitxapelketa irabazi berri dute BKL taldeko kadeteek. Era honetan, datorren urtean 1.go mailan jokatzeko aukera izango dute beasaindarrek.

☛ Aitor Munduate Bolinaga 23 urteko ataundarra hil zen Amezetako Aitz-zorrotz inguruan eskalatzen zebilela. Egoera txarrean zegoen klabija baten huts egiteak eragin zuen gaztearen heriotza.

☛ Ezin hobetzat jo daiteke Joxetxo Imaz korrikalari beasaindarraren aurtengo pista estaliko denboraldia. Urrezko (400 metrotan) eta



Josetxo Imaz

Zilarrezko (800etan) domina bana lepotik

☛ Apirilaren 10an eguerdi inguruan izango da helmuga Alegiako kaleetan eta arratsaldeko erlojuaren aurkako probak bertatik abiatu eta Larraitzko gainera igo arterainoko ibilbidea beteko du. Trafikorako goizetik itxiko dute Amezetako bidea

☛ Aurreko alean Ordizia-Atol K.E. eskubaloiko txapeldun geratzeko arriskuan zegoela genion. Bada txapeldun geratu zen.

M.L.



LANCIA
ETXE - AZPI

- Goierriko banatzaile ofiziala
- Instalakuntza modernoak
- Berebil berriak eta okasiokoak



Tfnoak: 88 10 61 - 88 29 46

20216 ORMAIZTEGI

IBAN MATE:

Beasaindarren "premie"

Ordiziako igerilariek

Iban Mate beasaindarrak 17 urte ditu eta Ordiziako Kirol Elkarteko igerilari-sailean dabil. Hain gaztea izan arren, 10 urte daramatza igeriketan, kontuak atera.

Izan berria da Estatuko Junior Txapelketa Coruñan: Iker Perez ordiziarra gailendu zen bertan; Ibanek 8. postua egin zuen 50 m. libretan, entrenatzeko ordutegi arazoak medio, baldintza fisiko onenetan ez baitzen joan.

Igarilari Taldean 15 bat lagun dabil biltza puntan eta titulu estatuala esku-

tan dutela, amaiera ona eman diote neguko denboraldiari, argiro uzten dutelarik beren ahalmena.

Baina beti dira bainak, eta OKEk ere baditu arazoak: Josetxo Elkor, Majori polikiroldegiko zuzendari bezala daukate eta ezin ditu gazteok entrenatu, nahiko luketeen bezala.

Beti ere ondo ibili izan da Gipuzkoa eta Euskadi-mailako modalitate gehienetan. "Gertatzen da ezin dudala gehiegi entrenatu, Donostian ikasten baitut ostalaritza". Denborarik ez du Matek. "Ez entrenatzean, ez dut hondorik, beraz, froga motzetan ibili beharra daukat. Ikasketak eta igeriketa-saioak konpajinatzea zaila da hemen, ez baitago zentzurik ikasi eta ekiteko. EEBB-tako Unibertsitateetan bai". Han egon ohi den Harri Garmendiak eta orain dauden Maider

Gaztañaga eta Doniantzu Murgiondok bai zortea!

Gogorra izan behar du egunero 4.000 metro egitea, "baina guk gutxi egiten ditugu, errendimendu handiko zentruetan 8.000 egiten dituzte..."

Entrenatzeari utzita ere, Estatuko Promozio Txapeldun izan zen Iban Badajozen, 89.ean. Geroztik Espainiako txapelketa guztietan parte hartu du, aurreneko tropelean-edo, nahiz irabazi ezinik ibili. Satisfetxoxamar. Halere, bere karrerak onenak eman dituen ustekoa da. "25 urterekin zaharra zara igeri-egiteko. Egin ditut egin beharrekoak, ez dut uste horretatik bizi naitekeenik".

Igeriketatik gehien erakartzen duena igerilari arteko giroa da, lehia-ondoko satisfazioak. "Poza. Leku eta jende asko ezagutzen duzu, Espainia eta Frantzia korritu dugu, bai eta juergatxo batzuk ere, igeri eginda gero", batak bestearekin ez baitauka zer ikusirik.

Mikel Aramendi



ARGIAREN HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.:TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak

20160 Lasarte-Oria

Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63


Faxa: (943) 36 10 48

Erosle Ahizpak

Aukera osoa

Zure etxe ondoan

Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN




Edurne Iziar ordiziarra indiarrekin

"Duela 25 urte Ordizian jaio zen neska alai eta idealista dugu Edurne. Zuzenbide ikasketak amaiturik, lanen bat aurkitu eta bizimodu erosoa eraman zezakeen hemen, Euskal Herrian. Holakorik egin ordez, Venezuelara joan da, ez "Amerikak egitera", hots, aberastera, hango herri indiar batzuei bere zerbitzua eskaintzera baizik. Batzuek Amerikaren "aurkikuntza" (!?) eskandaluzko eran ospatuko duten bitartean, beste batzuek nahiago dute isilkako elkartzasuna bizi eta praktikatu. Bete betean asmatu duelakoan nago, halakoxe poz-alaitasuna aurkitu bait dut bere begietan", zioen orain gutxi Txema Auzmendi jesuita ordiziarrek "Egunkaria"n.

Ordiziako institututik EHUKo Donostiako Zuzenbide fakultatera egin zuen salto, ilusioz beterik, Edurnek. Hara iritsi bitarteko ikasketa guztiak euskara hutsez burutu bazituen ere, Zuzenbidekoak osteria ia erabat gaztelaz. Fakultatean bizi izandakoez kritiko agertzen da.

<Jauzi handiagoa egin zuen gero: ikasketak amaitu eta bizpahiru hilabetetara Venezuelarako bidea hartu zuen. Aspaldi zuen Edurnek Hegoamerikako kezka eta interesik, baina CEPAL (Indiaren Autogestiorako Hezkuntza eta Promozio Zentrua) erakundearekin topo egin arte ez zuen barne zirrarra

hori baretzeko modurik aurkitu. Puerto Ayacucho 15 hilabete igaro ditu kontabilitate lanetan, zenbait herri indiarrei kontabilitatea erakutsiz. Eguberritan hemen izan eta berriz ere han da: "Naizena eta dudana eman nahi ditut, ez dirutruke ordea, hemen ohi dugunez". Txalogarria.



Andoni Sarriegi, euskaltzale beasaindarra

Berarekin eta bere tankerako beste askorekin, inongo txanponaz ordaintzen ez den zorra dauka euskarak.

Euskaltzaleasuna gurasoengandik dator, abertzale, euskaltzale eta kristau famili baten baitan sortua bait da Andoni. Euskararen auzian, "aukera garbia huen, eta hor ez zeogen zalantzarik gure etxean", aitortu zion Patxi Saez beasaindarrari "Egunkarirako".

Bere izaera euskalduna dela eta, garai batean makina bat mesprezu jasotakoa dela aitortu du Andoni Sarriegik: "Jende

tipo horrek, euskara berdin baserria, berdin arlotekeria, berdin astakeria ekuazioa planteatzen zian. (...) Ni kaletarra izan naiz beti, ni ez naiz baserritarra izan eta niri "casero" esan zidatek Beasainen".

Ikasketaz injinerua bada ere, lanbidez Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan ari da. Bere ustez, Beasainen euskararen egoerak hobera egin duen arren, asko dago eginkizun oraindik. "Euskararen erabilera eremua finkatu beharra dago", esan du.

Botere publikoaren aldetik, kanpoko hizkuntzaren eraginari langarik jarri ez izana salatu du: "Esate baterako, kanpoko telebista berriak sartu zaizkiguk inongo baldintzarik gabe. Hemen ate guztiak irekita zeudek kanpokoarentzako eta etxekoarentzako arazoak".

Ikusten ari den zenbait gauza ez zituzkeen sinistuko orain 12 urte: "Hemen bertako talde koskorak, gure kulturaren oinarri direnak, baztertzaren bitartean erraldoikeriatan erortzen gaituk". "Gauza handi horietan gainera poltsikoa libre eta kartera hausteko prest; bitartean, bultzatu beharreko betiko gure gauzatxoak zokoraturik eta bazterturik". Geu gara lekuko.

Gizon honen berririk ez duen euskaltzalerik apenas izango da Goierriin.



Ixidor Baztarrika idazlea hil

Aita Ixidor Baztarrika beneditar ataundarra, zuzentzen zuen Arabako Estibalizko Santutegian hil berri da minbiziak jota. 60 urte zituen ataundar teologoa 64.ean sortu zen eta "Jaunaren Deia", Euskal Teologoien Aldizkariaren zuzendaria izan zen 70-73. urteetan. Haren sorkuntzan parte hartzeaz gain, azken urteotan aldizkarian izandako suspertzaile eta zuzendaritza laguntzaile izan zen Baztarrika.

Baztarrikarena da "Salmo"en gipuzkerarako itzulpena, Gipuzkoako eliz guztietan kantatu diren salmuak, azken berrikuntza arte. Iratzederrekin batera egin zuen 63.ean itzulpen hau. Horrezaz gain, Agustin Gurenaren "Gogoetak"-en itzulpena ere egin zuen Enrike Zabala eta Rufino Mujika beneditarrekin bat.

Euskal aditzari buruzko liburuan parte hartu zuen Euskaltzaindiak bere bateranzko proposamen ofizialak argitaratu aurretik. Euskaltzain laguntzailea zen Ixidor eta Lazkao-Txiki eta beste bertso-saioetara ateratzen hasi ziren garaian epaimahaiko egin ohi zuen. Lazkao Zabala esanetan, "beti ihardun zuen euskara eta euskal kulturaren alde. Oso animosoa zen". Aipagarriak ditu Baztarrikak "Orixe mistikoa" artikulua eta egunen batean GOIERRITARRAK argitaratuko dituen Ataungo Santa Agedako kopia ederrak.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

AUTO KONPONKETA • MARGOKETA

GAUR, C.B.
KARROZERIA


SAN PRUDENCIO - Mendizabal Tel. 88 86 09 LAZKAO

TXAPELKETAN BITAN FINALISTA, EHUN SAIOTIK GORA URTEAN

Iñaki Murua:

"Gai politikoari ere erantzun behar zaiok"

Iñaki Murua gabiriarra 1956ko uztailean jaio zen, San Inazio bezperan. Blanca Lopezekin ezkondua dago eta bi seme-alaben aita da. Ordiziako "Goierrri"n Lanbide Heziketan dabil irakasle. Asteazken arratsalde batetan "kastigatuta" aurkitu genuen Iñaki, agindu bezala, gure zai.



Goierritarra- *Nolako bertsolaria baiz bi?*

Iñaki Murua- Kanpora begira irudi apal, barnerakoi, sentimentala ematen diatela uste diat. Eta gaietan ere "Sanbenito" hori jarri zidatek, ezta? Baina, beno, neri asko gustatzen zaidak bertsotan umorea. Eta gai politikoekin, herri honetan dau den zatiekin, ez duk erraza asmatzen. Gai politikoari ere erantzun behar zaiok, eta askotan gainera oso gustora, hire ideiak jarri nahi ditukelako.

Eskolan pazientzia behar

G.- *Aita, senarra, irakaslea. Zertxobait biru gai horiei buruz?*

I.M.- Ni oso gustora egoten nauk umeeekin, baina oso denbora gutxi diagu. Astebururik, ia esateko, librerik ez, eta aste erdian ere mila konpromisu, bilerak direla, bertsok eskatzen dizkigutela... Alde hortatik uste diat behar bezala erantzuteko astirik ez dagoela. Senar bezala, berri, ni oso gustora bizi nauk etxeke giroan, baina lehengo akats bera zegok. Aditu ere hala egiten diagu behin baino gehiagotan, eta egia duk. Eta irakasle bezala... Honelako

eskola batean pazientzia ikaragarria behar duk. Eta ikasturtearen hasieratik bukaerara arte barruan dauken jendeari ulertzeko eta erantzuteko gaitasun hori behar dela. Eta kurtsoaren bukaeran gelditzen nauk hustuta, derrigorrezkoak izaten dizkiat oporrak, eta egunen batean hustutako sentsazio hori ez badiat izaten irakaskuntza utzi egin behar, nukeela uste diat.

G.- *Bazekiat asteazkenetan ikasle-mordoa egoten dela hemen kastigatuta. Hik asko kastigatzen al duk?*

I.M.- Batzutan bai. Baina alde horretatik besteen parean nabilek. Dena kate bat duk. Ikasleentzat gaurko irakaskuntza ez zegok behar bezala egokituta, gelak ikasle-kopuru handiegiekin bazeuzkeagu, eta hor hi haiz irakaslea, talde horren "kontroladorea" nolabait esateko, polizia ez esateagatik, eta esan nahi dukena esaten ez haiz ausartzen, gero talde horren erreakzioa geldiezina izango hukeelako. Talde horren laguna izaten ezin duk hasi, ez duelako biderik ematen taldeak horretarako

G.- *Gaia emanda ala librean?*

I.M.- Leku batzuetan gaia emanda, oso garbi. Adibidez, sei lagunekoa jaialdiak plazan egiten direnean, eta

beste leku batzuetan, baita ere oso garbi, gaia eman gabe: bi bertsolari, elkar ondo ezagutzen dutenak, esaterako afalondo batean kantatu behar bada, herri, koadrila edo lagunarte horren berri afari-garaian norbaitek ondo azaldu ondoren.

G.- *Azken boladan dezente azaldu zarete disfrazatuta eta. Hiri zer iruditzen zaik disfrazen kontu hori?*

I.M.- Ibilbide motzeko osagarria dik hori bertsolaritzak. Inauteri inguruan eta kontestu baten barruan oso ondo zegok, adibidez Leitzako hartan. Bestela, ez. Bertsolaritza hitzeko komunikazioa duk, eta disfrazak eta gauzak eskura emateak esan nahi dik hitzak gero eta indar gutxiago duela eta irudiek hitzari neurri batean lekua jaten diotela. Arriskutsua iruditzen zaidak, gizartearen eta telebistaren eraginez hitza eta irudia lotzen dizkik jendeak. Bide txarra duk hori.

G.- *Zer egin behar da txapelketetan atzera geratzen diren bertsolariak bultzatzeko?*

I.M.- Ez zegok erreza, motel! Hori bizi izan diat nik bolada batean. Saio-antolatzaile guztiak jabetu behar dituk gaur gaudenak mantentzea beharrezkoa dela, baina bihar

izango direnak bultzatzea ere bai. Adibidez, jaialdi mistoak egiten hasi, beti hor gabiltzanak eta gazteak nahasian, edo auzokoekin. Nik uste gazte horiek erretzen ari direla txapelketekin. Txapelketatik kanpo aukera gutxi izaten dizkiate plazan aritzeko.

G.- Goierriin ba al zegok bertsolari gazterik fin dabilenik?

I.M.- Bai. Narbarte, Munduate, Elortza, Gerriko, Eguren, Sarriegi... Gipuzkoan bertsolari hauek arazo gehiegi dizkitek plazaz plaza ibiltzeko, gure kulpagatik behar bada. Lizaso, Egaña, Peña, Telleria, Sarasua, Mendizabal, ni neu... Horma bat bezala egiten diagu, eta gazteek ez zeukatek aukerarik ia plazan aritzeko. Alde horretatik, Bizkaiko U. Iturriaga, I. Elortza eta abarrengandik gehiago espero diat. Hauek hasiak dituk, Jon Maia eta,

“Librean eginiko azken saioa Sarasuarekin Zaldibian, eta oso gustora”

bertsoak “rapeatzen”. Hor bazegok zerbait.

G.- Gai-jartzaile bezala ere aritu izan baiz.

I.M.- Gutxitan. Plazaz plaza urtean 100 saio egitea zaila duk, gehiago zer esanik ez. Gai-jartzen bertsotan adina plazarik ez zegok ondo egiterik. Kopuru berdinean askoz ere zailagoa duk bertso-jartzaile aritzea bertsotan baino.

Bertsolaritza: herri-kirola

G.- Bertsolaritza herri-kirola ari omen duk biburtzen.

I.M.- Herri-kirolan jendearen zati haundi batek hartzen dik parte. Horrela ulertzen diat nik bertsolaritza. Izan behar luke herri-kirola, bai-na kirola sana, jende guztiak parte hartuko duena, inolako lotsa eta konplejurik gabe.

G.- Ez al zegok gehiegi lebiari emana?

I.M.- Hori duk zenbaiten kezka, ez ote garen bertsolaritza txapelketara mugatzen ari. Ez zaidak horrenbeste iruditzen. Jon Sarasuak egin ziana duk kezka horren eredu. Aintzakotzat hartu behar duk jende horren kezka.

*Jon Imanol Iturrioz
J.A.*

XUME EDARITEGIA

Giro alaia, jende jatorra

Nagusia, 5
IDIAZABAL

ZEPAI

jatetxea

Tlf. 80 10 98
IDIAZABAL



OSASUN

**Belar eta dietetika denda
Naturopata**

eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 - Tfnoa: 88 61 14 - ORDIZIA

J. A. MUNDUATE ASEGURU AGENTZIA

Hirigoien, 12. Tfnoa: 88 86 20 Faxa: 88 91 18
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)



Suskribatu zaitez!

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA**

88 96 12

*Inakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarra*

NORBERTO OYARBIDE IDIAZABALDARRA,

Bizikleta gainean ere trikitilari

Norberto Oyarbideren jaiotetxean jende ugari bildu eta giro berezi bat sortzen da, garai bateko istorioak kontu-kontari. Idiazabalgo etxe honi "Benta Txiki" esaten diote batzuek, beste batzuek, berriz, "Galerias Preciados".

Izan ere, zer ez dago han: artilezko galtzerdiak, katiuskak, lapitzak, arratoiak akatzeko pozoinak, "igandetarako galtzerdiak", kortxoak, danbolinak, tetxutik zintzilik. Ultramarinoak eta tabernatxoa. "Saltsa" berezia sortzen da nagusi eta parrokiaroen artean.

Norberto Oyarbide, besteak beste, soinu-jole izan dugu. 16 urterekin hasi zen anaiaren soinuarekin (bera baino adituagoa du anaia, Beasaingoa, pianoa eta guzti jo izan du hark), eta batez ere bodatan jo izan du: "Baina orduko ezteiak ez ziren oraingokoak bezalakoak. Orduan goizean hasten zen, elizara kalejiran joaten ginen, eta gero hurrengo goizera arte igoal aritzen gi-

nen". Eta Norberto aspertu egin zuen bizimodu horrek, nahiz eta oraindik ere, norbaitek eskatu ez-kero, laster asko joko dizkizun (jo zizkigun bezala), tango, paso-doble, habanera, kalejirak eta abar, bere "Guerrini" zaharrarekin.

Bizikletan "pixkat" ibilia

Norbertok, soinua jotzeaz aparte (oraingo joera "berri" horiek ez ditu oso gustoko), Idiazabalgo pareta bakarreko frontoian pilotan jokatzeari eta bizikletan ibiltzeaz zuen atsegina.

Bizikleta gainean ere soinua-joz: "Orduan asko joaten ginen Arantzazura. Joan ginen batean lanbroa ari zuen. Eta soinua tapatzeko ezer ez! Arantzazuko Bentako hartan zaku bat hartu eta Zegamara etorri ginen bazkaltzera. Bazkalondoan soinua jotzen joan behar nuela esan nien. Koadrila ginen. Aurretik bi jarri ziren badaezpa... Hala joan nintzen ni Idiazabalgo Saninazio beheko bidegurutzaraino inon manillarrik ikutu gabe, bizikletatik jeitsi gabe". Eta ez zeuden gaur egungo errepideak orduan!

Bizikletan karga handiak eramaten zituen, Aguraineraino igoal joaten zen ardi-larruak saltzera. Txatarra ere saltzen zuen, edo trapu zaharrak...: "Ni etorrita nago Zeraindik bizikletan hiru zakurekin. Bata parrilan, bestea manilar gainean eta hirugarrena koadro-barruan. Orduan arin nengoen, 60 kilo edo



Orain dela 55 urte erositako soinua

nintzen. 127 kilo ere pisatuta nago. 127 kilorekin gaizki pasa nuen, ezin arnasarik hartu".

Kutxak eta erroskilak

Kutxa-saltzen ere ibilia da idiazabalدارra. Portugalدار, belgiar, hollandar eta frantziarrek ere egin izan ditu tratuak. Hemen bertakoei ere saldu izan dizkie erlojuak, kutxak, armairuak eta...

Orain, ordea, ez dabil lan horretan, bista ere nahikoa galdua du (heredentziz datorkion zerbaite, bada), eta gainera, kutxa on gutxi dago egun. Etxean pasatzen du egun denborarik gehiena, "Benta Txiki"-n: "Garai batean jende gehiago etortzen zen, gazte-jendea, arku-meia ondo preparatzen omen genuen eta". Gaur egun ez dago horrelakorik. Hori bai, bere arrebak mokau goxoren bat aterako dizue, Etxegarate-bidea hartzen den hartara inguratzen bazarete.

Erroskilak ere ez ditu jadanik salt-



Erroskilak saltzen

zen Norbertok. Garai batean bai, eta trebea zen gainera bezeroak tentatzen. Behin, bera eta bertako erroskileroa ari ziren Ordizian, elkarren ondoan saltzen. Ordiziarrari erosten zizkion gero saltzeko. Norberto saltzaile hobea izan, eta egun batean bi egunetakoak saldu zituen. Joan da bertakoarengana gehiagoren eske eta honek eman nahi ez! Azkoitiara joan eta handik ekarri zituen gehiago egun hartan bertan: "Ez zidan gehiago erroskilarik ukatu, ez!".

Norberto Oyarbide, Fernando

Goenaga ordiziarrak eta Paulo Urretabizkaia beasaindarra, Goierriko hiru soinu-jole zaharrak omenduak izan ziren orain bizpahiru urte Ordizian ospatu zen Euskal Herriko Trikitilarien Egunean. Urte askotarako!

Jon Imanol Iturrioz
J.M.A.



Bizikleta gainean trikitia jo zuen egunekoak. 4 kilometro edo egin zituen manillarrik ikutu gabe.

Musika kritika

TRIKITIA ETA KANTUA

ZER EDO ZER ESTIMATZEN DUEN EDONORI:

Imuntzo eta Beloki: "Jo ezak!". "Elkar".

Horixe bera esan diogu hamaika aldiz **Belokiri** gertutik ezagutzen dugunok: **Jo ezak!** ondo egingo zuela bagenekielako, eta Jesukristoren adinara iristean erabaki digu benetan jotzea.

Hamalau pieza desberdin topatuko dituzue disko honetan, hauetatik hamahiru **Imuntzo eta Epelarrek** konposatuak dira musikari dagokionean, hitzak berriz, **Belokiren** hatzapar haundiek sortu edo atunduak eta **Joxan Ormazabal, Xabier Narbarte, Mikel Mendizabal eta Pello Zubiriak** gauzatuak dira, herrikoi bat ezik.

Imuntzoren dijitazio onez jotako nota definitu eta duoak oso ondo landuta daude eta **Belokiren** lehen grabaketa izateko hamar puntutatik zortziko aprobatu bat eman dakioke. Hunkigarria benetan **Antton Ibarguren** eginiko kantua, benetan hitz kari-



ñoak eta espresiboak **Mendizabalenak** kasu honetan eta oso ondo doakion musikari itzatsiak.

Ez da batere monotonoa gertatzen lan hau, sueltotan dantzatzekoak, rantxera eta soilik entzutekoak ditu. Betiko topikoetatik alde eginez sofistikazio berezirik gabe, baina dotore astintzen dituzte **"gantzak"**, ekologia, artzantza, "Egunkaria"...

Trikiti eta kantua zer edo zer estimatzen duen edonori, edozein adinetako pertsonari, proposatu edo oparitzeko disko, kaset edo konpaktoa **Jo ezak!** hauxe.

Imuntzo eta Makalo ahoa bete-betean esaten ikasiko genuen baina... horrela ere ez da gaizki geratzen, beraz **Jo ezak!** ahosapaiak libratzeko zorian.

J.M. Goikoetxea

Irripar egizu, arren

Orain dala hogeitamar bat urte, negu garaian, gau beltz batean, Idiazabalgo Zepai taberna parean, kamioi bat geratu eta kamioilaria sartu zan.

Atera idazu kafea eta pattar bat, aguro!

Gabon, Pelix, bañan zer gertatzen zaizu? Ondo ez al zaude? Zuri-zuri zaude ta...

Ondo? zuri...? Egotekoa ere bada-ta! Nik orain arte txotxolokeriak zirela ta... animak penetan eta...! Galizia aldean ere entzuna nuan "La Santa Compañía" (animak prozesioan ibiltzen dirala gau batzuetan) eta horrelakoetan ez nuen sinisten. Bañan gaurtik aurrera,

bai. Ez dira hamar minutu oraindik anima bat penetan ikusi dudanetik.

Nun? Nola?

Burgosen kamioia arratsaldean kargatu ta gauerdian Irungo muga pasatzekotan, Altsasun afari legea egin eta Etxegarate jeisten ari nintzala, kakalarria jarri zait bat-patean. Kamioia gelditu det Benta-iturri ondoan, bidetik mendi aldera hamar bat metro igo, prakak askatu ta makurtu naizenean nun ikusten dedan hogeit bat metrotara argi bat, ille zuriak eta letaniak dariola beste munduko ahots bat. Prakak lotutzeko astigabe kamioian sartu ta hemen nago. Hau

estualdia...!

Ja, ja, ja!, —aldameneko mahaitikan farre egin zuan laukote bateko muslariak—. Itxadon zazu piska bat eta erakutsiko dizut "anima" hori.

Bide ertzera irtenik, zai egon ziren eta egia: han ikusi zuten edadeko emakume bat nola zihoan farol bat zeramala.

Emakume hori zan, zure "anima penetan". Egun batzuetan afal ondoren, bere mendira joaten da, muga harriak (edo zuhaiztiak) bere lekuetan dauden ikustera eta errosarioa errezatuz ibiltzen da begiratzen dituen bitartean.

"Txurrupe" (Donostia)

Zinema kritika

Delicatessen

"haragi-genero" arraroa

"Delicatessen":

Zuzendari-gidoilariak: J.P. Jeunet, M. Caro; **Aktoreak:** D. Pinon, M.L. Dougnac, K. Viard, J.C. Dreyfus. Zinemetan.



Goierrin, ganaduaren okela jaten dugunean, "haragia" jaten dugula diogu. Haragia beste gauza bat da (Marco Ferreri-ren "La Carne" pelikulakoa, adibidez). Gertatzen da, piska bat aldrebesten garela okelari bere ize-nez ez deitzean. Ez zaie berdin suertatzen filma honetako traman parte hartzen dutenei. Bai "okel" arraroa, jaten dutena!

Manikomioez kanpo ere bizi dira zoroak eta zer esanik ez komikietako etxeetan. Komiki bateko pertsonaiak eta situazioak errealitate antza hartzen dute hemen: gerra baten ondorena kontatzen zaigu

harrigarrikiro (ez da erraz antzematen etorkizuneko edo iraganeko den); ero-etxe bat eta bertan etxea hornitzen duen harategia; txoro-tropel bat: bere burua akatzeko asma ahalezinak egiten dituen atsoa; "harrikada" galanta duen jende "pitzatua"; lurrazpian bizi diren "sator jostalariak"; harakin maniako-distorsionatua; honen alaba, antiaju-gabe asto bat ikusten ez duena...


Neska honetaz maiteminduko da horra iristean bixitaria. Zer eta zera bati biolontxeloaren soinu dultzea ateratzen dakien pailaso izanikoa. Ez dute eskapatoriarik honek ez beste guztiak... Gose-garaiak

dira, ijitoak ere bere amona jan omen zuen 40 egunetako elurte hartan.

Jeunet eta Caro bideo-klipen mundutik datoz eta lan ikusgarria, entzungarria egin dute, usaintsua, nola esan, ahoa bete hortz uzteko modukoa fedegabe handienari, berexietan berexiak benetan. Orain arte esandakoa irakurrita, ematen du latza behar duela izan. Ez pentsa, parre-algaraka jartzen zaitu inpernu-bitxi horrek. Baina, gero komeriak, okerreko begiarekin hasi gara begiratzen beheko haragitegi-ko karnizeroari. Bazpare!

Zinikoak

Berehala ditugu Sanprontziok Lazkaon



"Zure Argazki"

ESTANKO TABERNA

ODOLKIETAN BEREZITASUNA
Elosegi, 17. LAZKAO

GIROA TABERNA

ZURE GIROA

Areso, 6
Tfna: 88 77 40. LAZKAO

ZELATA TABERNA

LAZKAO



ERROTAUNDI OKINDEGIA

Elosegi Kalea, 2 - Teléfono, 88 74 90 L A Z K A O



MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50



IRYROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

RAIMON MUSIKALA

SANYO BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRETA, Z/G.

Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03

20200 B E A S A I N



HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi

tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

BEASAINGO TABERNARIEN ELKARTEA

“Idiazabal” Jatorrizko Deitura zer den

Artzaiaren ustezko bizitza lasai, bukoliko eta liluragarriaren atzean eguneroko errealitate gordina gordetzen da: bukaezinezko lana, bakardadea eta jornal exkaxa. Gaur egun euskaldunon ogibiderik zaharrena arriskuan dago. Eta egia esan, fraile joateko baino bokazio handiagoa behar da artzai izateko.

Ez ote du gizarte honek artzaiaren beharrik agian? Ez gaude hortan! Nork bestela eskeiniko lizkiguke hain gureak diren mamia eta ardi gazta edo Gabonetatik aurrerako arkume goxoak? Nork garbi eduki herri inguruetako

zelai eta larreak? Nork zaindu Aralar eta Urbia? Nork eutsi bizirik gure hizkuntzaren muina, gure ohitura eta izakera zaharrak? Denon ardura da, beraz, artzantza bizirik eustea!

“Idiazabal” Jatorrizko Izena nondikakoaren berma (garantia) da. Gaztai hori, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa edo Nafarroan (Nafarroako Iparralde, Erronkal aldea izan ezik, horrek bai baitu bere jatorrizko deitura) egina denaren berma eta hemen bertan, eta bertako ardi latxa edo karrantzanaren esnearekin egina dena. Berma hori kalitatearen garantia da.

Ondasun bat da, aberastasun bat, “Idiazabal” izenaren babes, bai esne-sortzaileak, bai gazta-egileak eta bai eta gazta-erosleak irabazian aterako diren ondasun eta aberastasuna. Kontsumitzaileok konturatu behar gara, bertako artzaion gazta jaten dugunean ez garela ari bakarrik gazta on eta osasungarri bat jaten, baizik eta horrez gain, ingurugiro bat ere eusten ari garela, paisaia edertzen, geure ohitura zaharrak eta euskara indartzen, hau da, Herri egiten.

Xabier Akizu / “Artzai-orria”

Sikulusaltsa goyerrieran

Baratxurin doaia

Euskal sukalden barazki au oso erabillia izan da: baratxuri zopaz aparte, saltsa berden, aragi erren, zenbait prejittura eta zenbait saltsatan.

Baratxurin usaie eskutatik naiz aotik kentzeko,

igurtzi perrejil apur batez.

Sendagai bezela-re oso ona da. Alkoola baño 55 aldiz desinfektantegoa da baratxurie. Erleen ziztaden aurka antziñatik erabilli izan da. Eztena atara ondoren, baratxuri zuritukin zauria indarrez igurtzi. Asieran min pixkat eingo dizu, baña bela ondo baño obeto geatuko zea.

Osasun aholkuak

Idorreria

(agortea edo “estreñimendua”, alegia)

Oraingo honetan osasunari dagokion sailean, guztiz arrunta den trastornoaz arituko gara: idorreriaz hain zuzen.

Idorreria hesteen ebakua gehiagoko geldialdiak sortarazten ditu) edota hondakin gogor, lehor edo zailak egiten direlarik.

Zerk sortarazten du idorreria?

Gorputzaren beste arazo batzurengatik ager daiteke, baina gehienetan jan ohitura desegokiaren ondorio da, erresiduoetan pobreak diren janari gehiegi eta fruitu eta barazki gordin gutxiegi jateagatik.

Geldi egotea, “moda”ko dietak, barneko aldaketa emozionalak eta stressa kaltegarriak dira.

Zer arazo sor ditzake idorreria kronikoak?

Hemorroideak ager daitezke eta uzkiaren (ipurdiko zuloaren) etentzea ere bai.


Bi hauek min handia egiten dute kaka egiteko garaian eta geroago ere bai batzutan. Arrazoi honegatik, egoera horretan dagoen pertsonak ahal duen gehiena atzerat-

zen du komoneko bidaia eta, noski, bukatzen ez den soka gertatzen da.

Zer aholku eman idorreria duenari?


- 1.- Eguneroko dietan sartu fruta eta barazki freskoak.
- 2.- Ugaritu lekariak, ale osoko zerealeak, piku lehorrak, aran lehorrak, ogi integrala,...
- 3.- Likido gehiago hartu gasik gabeko ur minerala edota frutuen zumua edanez. Oso ona da oheratu aurretik baso bat ur hartzea eta goizean baraurik laranja zukua.
- 4.- Ariketa fisikoren bat egin modu jarraian, utzi gabe eta neurrian.)
- Adineko jendearen kasuan komenigarria da sabeleko muskulatura piztuko duten ariketak egitea (etzanda ahoz gora, hankak mugitu).
- 5.- Behin komunera joateko beharra sentitutakoan, ez atzeratu eta joan.
- 6.- Hesteen ohitura bakoitzak nahi duen modura molda daiteke, gorputza ohitu daiteke. Bereziki otorduren baten ondoren, joan komunera kakagura jartzen saiatuz. Metodo hau baliagarria da, haseran arrakastarik lortzen ez bada ere.

Miriam Berruete (Medikua)



Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.
-
-
-



kutxa

• gipuzkoa
• donostia kutxa
•
• caja gipuzkoa
• san sebastián
•